

0.- SARRERA

Eta hona hemen bitxikeriez beteriko Bidankozarteko beste zenbaki bat.

Negua atzean utzita, oraingoa iazkoa baino askoz ere epelago izanda eta,

eguraldiko ezustek ez egonda, oraingoan Izai "Salbotx"ekin ibili ginen arduratuta, baina azkenean ongi atera zen Ezkara erori ondoren. Zorionak ba, txikia eta bere

familiarentzat, une latzak pasatu baitutuzte eta azkenean amaiera zoriontsua izan du.

Bedatseak une onak ekarriko dizkigulakoan, 11. Bidankozarteren edukiekin hasiko gara.

1.- HEMEROTEKA - IRUÑEKO ERRONKARIARREN ETXEKO 50. URTEURRENA

Inauguración de los nuevos locales del Centro Roncalés de Pamplona

El pasado domingo, a las doce del mediodía, se efectuó la inauguración de los locales del Centro Roncalés de nuestra ciudad. Asistieron al acto numerosas personas, entre las que se encontraban las autoridades y representaciones de los centros oficiales y sociedades.

Efectuó la bendición el padre capuchino Alberto de Vidángoz, finalizada la cual dirigió a los presentes unas palabras.

Diario de Navarra – 1964/06/30

A continuación hablaron don Miguel Javier Urmeneta, don José de Urzainqui, alcalde de Garde y el Presidente del Centro. Finalmente todos los asistentes al acto inaugural, amén de otros muchos que rodeaban el centro, se dirigieron al monumento de Gayarre, ante el que cantaron varios jotos y actuaron los grupos de danzas de la Sección Femenina de Pamplona.

Los locales, situados en Ciudadela, 3, son bastante amplios y están trazados con el clásico estilo regional. En ellos tendrán su sede todos los roncaleses afinados en nuestra ciudad.

S. R.

Duela mende Erdiko udaberria bukatu zenean, Nafarroako hiriburuak bere altzoan lore berria ermetzen ikusi zuen,

Erronkariarren Etxea. Dirudienez, garai hartan, Iruñan "kolonia erronkariarra" nahiko handia zen (eta handiagoa

bihurtuko zen ondorengo urteetan) eta, edozein etorkinen modura (hori baitziren erronkariarrak Iruñean) erronkariarrak herrikideekin elkartzeko gogotsu zeuden, Erronkariarren Etxean ibarrean baleude sentitzeko.

Berrian irakur daitekeen bezala, inaugurazioa ekitaldi ospetsua izan zen eta Iruñeko alkatea bera han bertaratu zen. Kleroa ezin zen falta, eta hauen ordezkari Bidankozeko aita Alberto (*Txestas*) egon zen.

Albisteari buruz beste ohartxo bat: Erronkariarren Etxearen egoitza ez zegoen gaur egun dagoen lekuan, Labrit aldapan, bazik eta Ziadela kalean, egun izkinan dagoen Roitegui botikaren ondoan dagoen lokalean.

Nahiz eta etxetik urrun, ziur bidankoztar askok une atseginak igaro zituztela (eta zenituztela) bertan.

2.- HIZTEGI BIDANKOZTARRA - GAZTA

Bidankoze artzain eta gazta oneko lurraldea izanik, atal hau elikagai honi eskainiko diogu. Izartxoak daukaten hitzak ibar osoan erabilitakoak dira.

Aro: Gaztari forma emateko zurezko xafla malgua (*Encela);

***Casala** (edo **Kaxala**): Gazta egiteko zurezko moldeak;

***Chispite:** Gazta egiterakoan gazta zulatzeo erabiltzen den orratza honek gazura bota dezan;

***Corteza:** Pagoko azalez egindako ontzia. Bertan gaztari botatzen zaion gazta gordetzen da;

Cucharro: Ardiak jezteko erabiltzen zen aho handiko metalezko ontzia;

Espada: Gazta egiteko erabiltzen den egurrezko labana, mamia moztu eta txikitzeo uztaiari sartu aurretik;

***Matón:** Gaztatutako esnearen zatia, behin moztuta zurezko eraztunetan sartzen dena eta hor estutzen dena gazta egiteko;

Muir: Jetzi. (Muidera: jezteko erabiltzen den tokia);

Rader: Gaztaren azala karrakatzea garbitzeko ("*Karrakatu gabeko gazta jaten duenak, jakin gabe gorotza jaten du*"), nire aitak esaten zuen;



Zorze: Hesidun eta zulodun zurezko ohol borobila. Bere gainean gazta zuketzen da;

Gazta (egitea): Zurezko ontzi batean esnea gatzatzen da eta lortutako "matoia" gazta egiteko banatzen da. Zati bakoitza sokaz itxitako uztai batean jartzen da. Hor hiru ordu laurdenez zuketzen da. Uztai oinarri zulodun (zorze) baten gainean jartzen da gazura isurtzeko. Tarte bat igaro ondoren, oreka leunki berotzen da gazura isurtzen jarrai dezan eta oreka, uztaioko sokaz estututa, zimel gelditzen da. Gazura gaztanbera lortzeko egosten da;

Ez dira hitz asko izan, baina ziur gosetu egin garela. Hurrengo zenbakian gehiago.

3.- HISTORIA APURRAK - AZKEN GUDA ZIBILAREN AMAIERA (1939)

Orain 75 urteko egunkariak, 1939ko apirilaren lekoak, bere lehen orrialdean eta aho batez, Francoren azken guda partea zekarten: “*Gaurko egunez, Armada Gorria gatibu eta desarmatua, tropa nazionalak haien azken helburu militarrik lortu dituzte. Guda amaitu da*”.

1937/06/11 - Urzainqui Perez'tar Juan (*Kostiol* - Erreketea);
1937/06/11 - Urzainqui Hualde'tar Pascual (Lengorna - Erreketea);
1937/12/18 - Ornat Landa'tar Bernardino (*Bomba* - Armada);
1938/05/17 - Artuch Urzainqui'tar Veremundo (*Maisterra* - Armada);


Armada hildakoak bertako unitate desberdinetakoak ziren. Beraien heriotzaren inguruko datu gutxi ditugu, Ignacio Sanzen (*Txantxolit*) kasuan izan ezik, Durangon zendu zena. Aipamen berezia Casildo Sanzen (*Kurillo*) heriotza, guda amaitu eta hiru hilabetera, pentsa daiteke guda zaurien ondorioz izan zela.

Alderdi Errepublikano heriotzei dagokionez, bi eta familia berekoak. Lehena, Vicente Mainz (*Landa*), estatu kolpearen osteko egunetan atxilotua eta San Cristobaleko kartzelan espetxeratua, eta handik hanka egin 1938ko maiatzaren 22an ihesaldian (ikus Bidankozarte 8. zbk.). Hogei eguneko ihesaldia burutu ostean, “Indar Publikoak” tirokatua izan zen Esteribarreko bailaran. Enrique, anaia, atxilotua lehenik eta aske utzirik ostean, Frantziara pasa zen, eta handik itzuli zen alderdi errepublikanoan borrokatzeko, eta hantxe heriotza topatu omen zuen, iturri ezberdinek lekua eta data zehaztu ezinik geratu baziren ere.

Bidankozen badirudi erbesteraturik ez zela egon.

Guda Zibilak utzitako giza arrastoa albo batera utzita, gudaosteko urteetan Bidankozek aldaketa traumatiko ezberdinak jasan zituen, herritik ateratzeko ibiltzeko baimenaren derrigortasuna (Frantziako mugarekiko gertutasunagatik eta ihes egiteko zegoen arriskuagatik), errotaren itxiera (irina ehotzeko), eta hortaz baimendutako errota zuten inguruko herrietara jo behar izan zuten, Igari-Bidankoze- Erronkari errepedearen eraikuntzarako Armadaren eta gudako presoen herriratzea, eta honek suposatu herritarrengan eragindako zirrara; Makien erasoaldia herri inguruan eta liskarrak eragindako 10etik gorako hildakoak ...

Finean, herriarentzat ondorio esanguratsuenak baino ez ditut aipatu, baina argi dago azken guda zibilak (eta ez pentsa bakarria izan zela edo gertatu berri den bakarria: hortxe ditugu guda karlistak), orohar edozein gudatan bezala, Bidankoztarrentzat ez zuen batere balantze baikorrik izan.



Horrela, gudara eraman zuen estatu kolpea porrot egin (ez baitzuen bere helburua lortu, hau da, 1936ko uztailaren bertan boterea hartzea) eta 3 urte beranduago, frankistek garaipena lortu eta boterea eskuratu zuten.

Gure herriari dagokionez, gudarekiko izan zuen jarrerak ondorio ezberdinak utzi zituen. Giza alderdiari erreparatu, eta nik dakidala, 12 “baja” erregistratu ziren, hau da, 12 hildako, 10 alderdi frankistan eta 2 alderdi errepublikanoan, denak bat izan ezik liskar armatuen ondorio.

Gainera, alderdi frankistaren hildakoen artean, hildako batzuk Armada “Nazionala”ren unitatekoak ziren eta beste batzuk, berriz, Tertzio Erreketeetan.

Hildakoen zerrenda kronologikoki sailkatua (bi data zehazteke daudelarik) honakoa litzake:

1937/04/30 - Sanz Fuertes'tar Ignacio (*Txantxolit* - Armada);
1937/05/17 - Juanco Perez'tar Daniel (*Paxapan* - Armada);
1937/06/11 - Larrea Mikeliz'tar Antonio (*Xapatero* - Erreketea);

1938/06/10 - Mainz Landa'tar Vicente (*Landa* - Errepublikano);
1939/02/25 - Artuch Jimeno'tar Manuel (*Largotena* - Armada);
1939/07/15 - Sanz Salvoch'tar Casildo (*Kurillo* - Armada);
(Datarik gabe) - Sanz De Miguel'dar Gregorio (*Arlla* - Ejerzitoa);
(Datarik gabe) - Mainz Landa'tar Enrique (*Landa* - Errepublikano);

Bidankozeko Erreketeak Montejurrako Tertzioaren barnean zeuden, eta hiru hildakoak egun berean zendu ziren, Galloko gazteluaren erasoan (Bizkaiako frontean, Durangotik gertu?) eta domina militarrekin sarituak izan ziren.



4.- OIKONIMIA (ETXEEN IZENAK) - TXANTXOLIT / CASERO

Bidankozeko etxeen izenen berrikuspenean, hirugarren aldiz iritsi gara *Iribarnea auzora*. Eta kasu honetan, etxe bitxi bat aztertuko dugu, bi izenez ezagutzen baitugu, *Txantxolit* eta *Casero*, eta gainera *Biniés ugaltxaren* gainean dagoen etxe ondoko zubiarri ematen dio izena, hau da, *Casero*ko *zubia*.

Aurreko zenbakian ikusitako etxean bezala, *Monxon* etxea, oimordetzan joan-etorri ezberdinak izan dituen oso zaila izan da etxearen jabetza jarraitzea. Etxe hau azkeneko belaunaldietan ez da gurasoetatik seme-alabei pasatu, baizik eta zentzu horretan hainbat aldaketa izan du.

Zentzu horretan, *Casero* etxearen izenak momentu batean etxea izan zenaren ideia ematen digu, zeren eta, seguruenik garai batean etxean norbait “*maizterra (por casero)*” biziko zen pertsonari egingo dio erreferentzia, hau da, alokatuta (agian etxe osoa edo agian zati bat). Gero ikusiko dugu nor aipatu dezakeen.

Etxearen beste izenari dagokionez, *Txantxolit*, ia ezinezkoa agertzen zaigu asmatzea nor izendatzeko erabiliko zen ustezko ezizen hori. Bidankozeko pertsona zaharren batek esaten zuen “*chancho*” hitzarekin zerikusia izan zezakeela, “txerria” esan nahi duena, baina hitz honek jatorri argentinarra dauka, eta, ondorioz, ez du bateragarria ematen Bidankozeko etxe zahar baten izenarekin. Gainera, momentuz, ez dut arrastorik aurkitu etxe honetatik “amerikarren” bat abiatu denik orain dela gutxi arte.

Hori dela eta, uste dut “*txantxulin*” hitzaren antzekoa dela, Otsagabian erabiltzen dena “*ganora gutxiko pertsona soil bat*” (“*Vocabulario Navarro*”, J. M. Iribarren) mespretxuz izentzeko, eta beharbada, Bidankozeko beste era batean ahoskatu zitekeen.

Nola edo hala, etxeko joan-etorriei errepasoa egiten dut, zeren lehen adierazi dudana bezala, esku-aldaketa asko izan baitu. Gaur egungo jabeetatik hasita, Sanz Iriarte anai-arrebak, beraien aita Perfecto Sanz Fuertes etxean jaioa zen, denok dakigunez.

Perfecto, Guillermo Tomás Sanz Calvo (*Kurlo*) eta Vicenta Fuertes Maisterra (hainbat etxeetan bizi izan zena) senar-emazteen lehen semea zen. Bikotea *Txantxolit* etxera bizitzera joan zen 1909. urtean, ezkondu zenean. Beraz, ez zen inor *Txantxolit* etxekoa? Zehazki ez. Orduan, nola heldu ziren etxe horretara? Ba Guillermoren amaordea (bere aitaren, Antonio Sanz Garate (*Kurlo*), hirugarren emaztea) Petra Fuertes Hualde (*Txantxolit*), Guillermoren aita bigarren senarra izango zuena, *Txantxolit* etxearen jabea zelako.



Kontua da Guillermo, bere aita eta anai-arrebek, *Kurlo* etxean jaioak izan zirela, eta han bizi izan ziren salbuespen batekin, 1897. urtean Antonio Sanz Gárate eta Petra Fuertes Hualde, ezkonberriak, *Txantxolit* etxera bizitzera joan ziren baina urte bat pasata *Kurlo* etxera bueltatu ziren.

Eta zer gertatu zen etxearekin 1898 eta 1909. urteen artean? Ba 1898 eta 1902 artean etxea hutsik egon zen eta 1903 eta 1909 bitartean bikote bat bizi izan zen, beharbada *maizter (de casero)* (hau izan daiteke izenaren jatorria), Román Hualde Salvoch (*Pelaire*) eta Sotera Fuertes Maisterrak (*Fuertes*) osatua, ondorengorik gabekoak. Nabarmendu beharra dago bikote honen emakumearen abizenak,

Guillermo Sanz Calvoren emaztearen berberak direla, baina ez zen bere ahizpa, baizik eta bere izeba.

Petra Fuertes Hualderen harira bueltatuko gara. Petra etxea oimordetu zuen arreba izan zen, eta 1869. urtean Angel Antonio Sanz Navarrokekin (*Mailusa*) ezkondu zen, seme-alabarik izan ez zuten, etxean bizitzen egon ziren bitartean, *Mailusa* etxeko senide batzuk eta geroago Fuertes etxekoak oinorde gisa (“*de herederos*”) bizitzen egon ziren. Izan ere, etxean bikote bat seme-alabekin, Petra eta bere senarrarekin bizitzen egon ziren baina azkenean handik joan ziren. Beraz, Petra eta bere senargaia berriz ere bakarrik geratu ziren etxean, senarra 1895. urtean hil arte, eta Petra 1897. urtean berriz ezkondu zen.

Petrari dagokionez, Pedro Francisco Fuertes Esevenriren (*Fuertes*) eta Sevastiana Hualde Barrenaren (*Landana*) 4 seme-alaben artean txikiena zen. Ez Petra, ez bere 3 anai-arrebek, ez bere gurasoek ere ez ziren *Txantxolit* etxean jaioak. Berriz ere, ez zegoen etxekorik. Eta hauek nola iritsi ziren? Ba etxearen aurreko jabea 1853. urtean ezkonduko bikote bat zen Francisco M^a Larrañeta Bertolek eta Dolorosa (edo Dolores) Mainz Urzainkik (*Txantxolit*) osatua. Zoritxarrez, bikotea, 1855. urteko kolera izurritean hil zen ondorengorik utzi gabe, etxea hutsik utziz, emakumearen gurasoak hilak eta gainerako anai-arrebak beste etxeetara ezkonduak edota hilda zeudelako.

Sebastiana Hualde Barrena, Dolorosa Mainz Urzainkiren aitaren, Angel Mainz Hualderen, lehengusua zen eta etxea eskatzeko beste gertuko seniderik ez zeudenez, Sebastiana, bere senarra eta haien seme-alabak han bukatu ziren.

Hortik atzera, badirudi etxearen eskualdaketa “normaltasunez” gurasoetatik seme-alabei pasa zela.

Dena den, “*Txantxolit*” ezizenak nori egiten dion erreferentzia jakin gabe jarraituko dugu, baina, gutxienez, badakigu, nolabaiteko sakontasunarekin, noren eskuetatik pasa den *Txantxolit* edo *Casero* etxea.

5.- TOPONIMIA (LEKUEN IZENAK) - ATABLANDA

Oraingoan Bidankozetik gertu dagoen tokia izendatzen duen toponimoari buruz hitz egingo dugu: *Atablanda*.

Atablanda, errepidetik ezkerretara dauden soroak izendatzen ditu (Bidangozetik Burgirako norabidean) haitzpetik (Pitxorronga) *Bilaskoko sakaneraino*. Errege-bideko azken zatia handik pasatzen zen, Burgitik etorri eta Bidankozera iritsi baino lehen. Izan ere, Haitzpean dagoen eremuari *Atabea* esaten zaio. Gero ikusiko dugun bezala,

toponimo horrek *Atablанда*ekin zerikusi handia dauka.

*Atablанда*k euskarazko hiru partikulen uztarduran du jatorria: *Ata-* (*ate* = “atea, mendatea, pasabide estua”) + *-be* (“-ren azpian”) + *-landa* (“zelai, soro”). Horrela, *Atablанда*ren esanahia zera da: “landa, sail, edo *Atabea*ko soroak”, hau da, “mendate/pasabide estuaren azpiko soroak”. Eta argi dago gaur egun ere hala dela. Bestalde, mendate edo pasabide estuari egiten dion erreferentzia, *Pitxorronga* eta *Petxeraren* arteko

pasabidea izango da ziur asko, Errege-bidea Bidankozera sartzen zen tokia baitzen, hain zuzen ere.

Dokumentazioari dagokionez, *Atablанда* jasotzen duen lehenengo idatzizko berria 1652. urtekoa da, hainbat ondasun hipotekatzen diren notario dokumentu batean, eta ondasun horien artean “*Atablанда izeneko lau errege-lurreko soroa, alde batetik On Pedro Aysaren baratzeekin muga egiten duena, eta bestetik, Bintze ugaltzarekin eta Bilaskora pasatzen den bidearekin*”.

6.- MARIANO MENDIGATXAREN GUTUNAK (ARTILA ETA GAZTA)

1904ko otsaileko gutunarekin jarraituz, eta hiztegiaren ataleko edukiarekin lotuta, Mariano Mendigatxak artila eta gaztari buruz esaten duenari buruz hitz arituko gara oraingoan. Gainera, bere ogibidea bestelakoa zela argi uzten du gainera, berak egurretan ibiltzen baitzen.

Artilari buruz hitz egitean, garai hartan, ardiei ilea urtean lau aldiz moztzen zitzaizela esaten du, eta hori produktuaren garrantziaren seinale da, nahiz eta ordurako gainbeheran egon. Ilea mozteko datak: lehenengo martxoan; bigarren, maiatzaren 20a eta San Pedro (ekainaren 29a) artean, eta ardiak mendatean badaude, San Pedro ondoren; hirugarren, Sanmigeladan (irailaren 29an); eta laugarren, San Andres egunean (azaroaren 30ean).

“*Gazta (ganzta) bordetan egiten da. Bordari “onla” esaten zaio, eta gazta egiteko eta artzaiak atsedean hartzeko da. Ardiak jezten diren lekuari “xasgu” esaten zaio, urtero egiten da, eta ardiak han elkartzten dituzte jezteko. Ardiak jetzi*

ondoren esnea olaberran jartzen dute eta han botatzen zaio behar duen gaztagia. Manitu ondoren, dena desegin, zuku lodi batean jartzen dute, eta gero bi eskuekin bildu eta dena elkarrekin jartzen dute. Horri “matoina” esaten diote. Matoina “xura” (iragazki) batean jarri eta zuku guztia kentzen diote. Gero uztai batean



jartzen dute eta estutuz, suaren beroarekin, gazta egiten dute. Gelditzen den zuku, ontzi batean egosten dute, egosi ondoren pikorretan gelditzen da, gero pikorrak “agorxalia”-rekin (bitsadera) jasotzen dituzte eta “errekesuna” (gaztanbera) egiten dute. Gaztanberaren zukuari “ixirikot” (gazur) esaten diote. Gazurarekin txerriak loditzen dira, eta gaixo askori sendagai moduan ematen diete; ardi bakoitzari hiru edo lau gazta libera (1,1 -

1,45 kg) ateratzen dizkiete eta zortzi edo hamar ontza (0,25 - 0,32 kg) gaztanbera. Gazta, freskoa, arroa hogeitazazpi pezetatan saltzen dute (2,02 pezeta/kg); eta orain, (otsailean, onduta), libera bakoitza pezeta batean (2,69 pezeta/kg); gaztanbera libera bi errealetan saltzen dute (1,34 pezeta/kg); gaztanbera Garizuman eta bijili-egunetan bazkaria prestatzeko erabiltzen da; jendeak, olio bano, gaztanbera nahiago izaten du zopetarako”.

Bitxikeri bezala, nahiz eta luzeraren oinarriko unitate hartu zen metroa, eta sistema metriko hamartarrarekiko baliokidetasunak 1852. urtean kaleratu eta 1879. urtean legez derrigorrezkoa ezarri zuten arren, hainbat hamarkada ondoren erabiltzen jarraitzen dituztela ikusten dugu. Eta beraz, aldaketa hauek barneratzea zenbat kostatzen duen ikusita, oraindik ere, urteetan salneurriak pezetatan pentsatzen jarraituko dugula ematen du.

7.- BUKAERA

Eta hemen amaitzen da Bidankozarteren 11. zenbaki hau. Zenbakia bukatutzat ematerako guda zibilaren ondorioak pairatu zituen beste bidankoztarrak aurkitu dut, nahiz eta ez hil hainbat urte pasatu baitzuen espetxean. Baina lekuri faltagatik, San Pedroko zenbakirako utziko dugu edo, beharbada

San Agustinekorako, data aproposa izateagatik.

Hurrengoan, hemendik bi hilabetera, askoz gehiago: Bidankozetik gertu zeuden gazteluen berri historikoak, *Zelexia* lekuizena, *Montes* etxea, duela mende erdiko San Pedroko xeien egitaraua eta

gauzaren bat gehiago. Eta, azkenik, prest egongo da Bidankozeko web-gune berriua.

Ordurarte, baratzei gogor ekitera eta bedatsez gozatzen. Agur bero bat eta 12. zenbakian “*elkar irakurriko dugu*”.